

# ZER

**BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ\***

171n. Zenbakia Zezeilla  
1993



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA  
KULTURA SAILA  
LAGUNTZAILLE



## ARMENTIA'KO ELEIZEA

- ERROMANIKU-TANKERAKOA
- ANTXIÑAKO EUSKALDUNEN LANA
- ARABARREN GOMUTAKIA

---

## XVI GIZALDIAN

---

1. **Bizkunde itza.-** Olako eragin -zirkin edo mugimendu-andi bat adierazten dausku itz onek. Beste izkuntzetan "renacimiento", "renasentza" ta antzekoak erabilli dabez XVI'gn. mendean Europa osoan erne jagi zan eragin antzetsua azaltzeko.

Erdi-Aroak, gotiko giroan batez be, frutu ederrik ekarri eban. Beti gauza bardinak, alan be, errez aspertu egin oi gaitu. Eta aurreko gizaldietako karga lepotik astindu gurarik, bide barrien billa asi zan Europa. Gorabera larriak izan ziran politikan; aurretiko ideolojiak ezin-egona sortzen, bai, bizi-bizi; laster sortu ziran baita burrukak gero ta aurrerago joiazan zientzi-gaietan be. Labor: eder-lan gurtietara zabaldu zan igarri bage olako aize-bolada barrizalea.

Aldakuntza garaia, nunbait. Orduko gizarte-maillen aldaketak albo batera itxirik, bik eder-lanen barrutia -elerti, musika, pintura ta arkitektura- azalduko dautzuet pizkat. Bizkunde aro barruan beti be, au da, XVI'gn. gizalditik geiegi aldendu barik.

Bizkunde au, etzan Europa'ko lurralde danetan garai bardinean erne-azi; Italia'n, esaterako, amalaugarren gizaldirako nabarmentzen asiak ziran aro barri aren txinpartak; Espafia'n, Frantzia'n, Alemania'n, Ingalterra'n eta abar, XV'gn. mendean erdirantza dator bizkunde ori. Burdin gorria mailluz jo ezker, millatxinparta sortzen. Bardin orduan be: literatura ta plastika arte gurtietara zabaldu yakun Bizkunde eragin ori.

2. **Erri-izkuntzak.-** Literaturari gagokiozala, esku-idaiziaz ziran ordurarteko liburuak, urri ta eskaxak naitaez. Aberatsak eta jakintsuak eukezan bakar-bakarrak; erri xeak ez eban olakoen aukerarik. Kultura bide estua, beraz, erriarentzat. Latina erabilli oi eben, gaifiera, garrantzizko arlo gurtietan. Liburuak ugaritu bear ziran, ba, erria eskolatzeko. Zelan?

Estualditik datoz asmakizunik ederrenak. Egazkina, adibidez, mundu gurtiko len-gerran osotu zan; gaur petroleoa ta onen birako indarsorburuak lez. Orduantxe sortu zan irarkola -inprenta-, liburuak ugaritu ta merkeagotzeko bide aukerakoa. Ordukoxea dogu erri-izkuntzen esnatze ta loratze garaia. Inprimitzailleak erri izkuntzetara jo bear izan eben erosle billa, azoka billa; eta ementxe asten dira latin-erromantzeak. Erri-izkuntzak ordezkatu eben erromatarren izkera. Aurrerantzean ez dira iguifiez ikusiak izango erri-izkuntzak.

"Ama izkuntzak bertan bera utzirik -din() Andima'k-, antxina latin zanean ari ziran (jakintsu geienak); izkera apainez, nai ba'duzute, bainan erabat utsalez. Izkera flak, naiz eta aberatsenak izan, ez dute inoiz ere izkera bizien pizkortasunik eta aietan egin idaz-lanak, naiz eta garaienak izan, beti inul eta bizi-gabe agertzen zaizkigu. Frantzia'n batez ere, renasentzak, ango gizon argiak erri-izkera pizkortu eta apain-

tzera eraman zituan. Orduz-gerokoak dira frantsesaren aurre-  
rapenak literatura bidean" (Euzko-Gogoa, 1954, 1-2, 36 or.)

3. **Irarkola Euskalerrian.-** Gutemberg'ek, XV'gn. mendean erdirantza, irarkola asmatuta laster, 1456'an argitara eban bere lenengo liburua, Biblia. Liburuak ateratzeko era ori, ederra zalako nunbait, beingoan zabaldu zan Europa'ko bazter gurtietara. Baita Euskalerrira be. "Naparroa oraindik bere erregetzaren jabe zan garaian ezagutu zan Irunean Bricar-en inprimategia". 1489'an, latinez atera eban idazti bat; andik laster Logrono'ra aldatu zan eta gero, Cisneros Kardenalak deituta, Alkala de Henares'era joan zan, Biblia Poliglota irartzeko.

Migel Egia, legorretarrak dinoenez, Brocar'ek, suinak noski, ta Anvers flamendarrak ainbat liburu atera zituen Lizarra'n, XVI'gn. gizaldi barruan ziurki; Anvers gero, Iruna'ra aldatu ta an, 1561'an, Santxo Elso'ren Doctrina argitaratu eban, euskeraz ta erderaz. Auxe dogu Euskalerrian euskeraz atera zan lenengo liburua; Etxepare'rena, bada, 1545'an izan zan argitaratua.



Timoteo Urkiri'ren liburua. Erdera, dago, baina irakurgarria da.

## XVI GIZALDIAN

1. **Bizkunde itza.**- Olako eragin -zirkin edo mugimendu- andi bat adierazten dausku itz onek. Beste izkuntzetan `Yenacinliento "renasentza" ta antzekoak erabilli dabez XVI'gn. mendean Europa osoan erne jagi zan eragin antze- tsua azaltzeko.

Erdi-Aroak, gotiko giroan batez be. frutu ederrik ekarri eban. Beti gauza bardiñak. alan be, errez aspertu egin oi gaitu. Eta aurreko gizaldietako karga lepotik astindu gurarik bide barrien billa asi zan Europa. Gorabera larriak izan

Ona emen gure billatzaillaren buru bide batzuk:

Gure euskerea ludiko jakintzaren barruan aberastasun aundi bat da eta beronen oiñarriak alda-eziñak eta tinkoak dira. Orrelantxe izaten dira jakituri aundia barruan daroen gauza guztiak.

Euskereak abotsa erabilliaz, ezarri dautsaguzan urrez- ko gai orreik, naikoa dauz izadiaren bizikerea ta ibillerea argitzeko. Oraingo jakitunak zenbakiak, argi-urteak, ba- kartasunezko azkunak eta olakoak erabilliaz izadi osoa neurtu egiten dabe.

Euskerea jakintza osoa da, euskaldunen kultura osoa- ren laburpena. Gure jakituriaren sustraiak beragan dagoz.

Euskerea esaten dogunean jatorrizko ta asierako iz- kuntza esaten dogu, ez oraingo beste izkuntzak diran lez, kanpotik artua, nastatua, beste ele batzutatik etorburua

tzera eraman zituan. Orduz-gerokoak dira frantsesaren aurre- rapenak literatura bidean" (Euzko-Gogoa, 1954, 1 2, 36 orJ

3. **Irarkola Euskalerrian.**- Gutemberg ek, XV'gn. men- dearen erdirantza, irarkola asmatuta laster, 1456'an argitara eban bere lenengo liburua, Biblia. Liburuak ateratzeko era ori, ederra zalako nunbait, beingoan zabaldu zan Europa'ko bazter guztietara. Baita Euskalerrira be. "Naparroa oraindik bere erregetzaren jabe zan garaian ezagutu zan Iruñean Bri- car-en inprimategia ". 1489 'an, latíñez atera eban idazti bat; andik laster Logroño'ra aldatu zan eta gero. Cisneros Karde- uaLlndua:'.c-zñ~? KuilGark gefenelan, Ic.. izan zan Babel'en itxurea, agertzen jaku.

Jatorrizkoak diran izkuntzak, abotsa erabilliaz, bitza izadia argitu egiten dabez. Adimenenezkoa naiz gaidunak diran izaerak, abotsaren bidez euren neurrira ekarrita ge- ratzen dira.

Orregaitik, izkuntza jakintza osoa izatera eldu da.

Berbak jakintzako arauen izaera daukee. Mari lurraren bizitasuna da, lan eginbidea da, kimian H2O dan antzera. Mari izadiko gaiari jarritako izena da. Maiu, ostera, adi- menezkoa da, erderaz abstraktoa esaten dautsoe oneri, eta Mari'ren senarra da. Maiu izena artzen dau eta dana neu- rri orretan, giza ta emakume, artzen dauz, bipolarra dala- ko, eta Mari orren aurkako eguzkia, Helios, Apolo.

### ZUBIKARAI'TAR AUGUSTIN'ERI ESKUTITZA

Zubikarai'tar Augustin, agur:

Abendua-Gabonilla'ko ZER aldizkarian, Ondan'u'ko zeure erri maiteak zure omenaldia ospatu dauala irakurri dot.

Zulako gizon batek orrenbeste adiskide eta lagunak, izatea ez da arritzekoa, euskerari buruz zenbatzen dozuzan merituak ez dira makalak-eta.

Irakurgaiak irakutean, abotz guztiak jakiñiko gauza batzutan bat dagozela ageri da, zure zintzotasuna, zuk egin dozun erraldoiaren lana, bai eta zuk egindako euskeraren aldeko alegiñak.

Gelditu barik, jo ta ke ibilli zara-ta ona emen bizitza guzti bateko ondorenak, frutuak; konta-eziñeko liburu, an- tzerki, berbaldi etabar. Beraz, jakiña dan lez, ainbesteko ospe ta entzute izatearen artean ezin alde batera itzi zure ira- kurlle apal baten gogoratzea eta zorionak emotea. Euzkerazale batentzat atsegiña da, olako gertakizunetan parte ar- tzea, eta ezin bada be, goratzea, poztea eta zelan ez, barriro be zorionak emotea.

Nik pentsatzen dodan antzera edo era bardiñean illeroko onen irakurle guztiak, ados egongo diran ezkerro. artu egizuz danon agur beroa eta zugaz bat gagozela esatea.

Gogoan daukat orain urte asko ez dirala Bizkai'ko Aldundiak zuri egindako omenaldian bai izan nintzala eta lagun ezagun eta ezezagun asko batu gintzazala Bilbo'ko Aldundi-etxean bertan. Oraingoan, Ondarruan ezin egon izan nazan arren, orrialde onexengandik bialtzen dautzut nire agur berezia eta gomuta zintzoa.

Urte askotan jarraitzeko osasuna Jainkoak emon daizula, Augustin!.

LARRONDO

## EUSKAL MARGOGINTZA

**Zer dan.-** Gaiezko azal lau batean, kolore nabar zuri-illunezko une ta aurkako tarte bizi-meen bitartez, zerbait adierazo nai da marraztu ta margotzean.

Koloreak alkar arreatuz azala banandu edo apurtu egin daroe; koloreak nastetan dira laukiaren azalean, batzuk biziago, beste batzuk motelago, irudimenak nai dauanez, aurrera naiz atzera egiñik, kolorezko zer eder bat burutuaz.

Margolariak or, poetak itzakin lez, zerbait esan gura dau. Zer? Orain irudi bat da, gero margo-lerro soillak, abstraktuak. Ezta errez egillearen asmoaz jabetzea. Zer adierazo nai eban Santimamiñe'ko pintoreak? Edo-ta Picasso'k "Gernika" osotzean?

Dana dala, guztiz antxiñakoa dozue koloreak nastatu ta irudiak egitea.

Euskaldun zarra arpeetan bizi zala asi yakun eiza-gertakizunak marrazten. Joan Santimamiñe 'ra ta ikusi.

Lenengotan, erraiñu batzuk, antz-illun eta inguruak besterik etziran izango, ta gero kerizpe ta izpiak osoa-gotuz arri-arte bikaiñera eldu yakuzan.

Geroago, irudikizun utsezko marrazketak, dibujuak itxi ta erlejiño, etxe-bizitza, jazoera ta inguruetakoz gauzak kolorezko laukian jarten asi ziran. Orrela Egipto' n, Grezia' n, Erroma' n, munduan...

**Eta gurean?.-** Ona zer jazoten yakun sarri: norbait "ez dakigu noiztikoa dan gure artea" esan ba'daroa, beste askok eta askok be, berba-lapiko, axe bera esango dausku bein eta barriro.

Obe, ala be, gauzak sustraiz aztertu.

Gure asabak margolari punterengoak ziran; bestela, zelan marraztuko ain ederto Ekain n eta Santimamiñe'n daukaguzan zaldi, aunts, basurde, basauntz, bisonte ta besteak? Ordutik onako gure aurrerapena? Bai ta ez: gaurko Picasso'ren lana, zer askotan beiñik-bein, paleolitiko garaikoa ez al dogu? Or "Gernika" lauki ausarta.

Arpe ta koba-zuloetan, aitatu doguzan biok -Ekain eta Santimamiñe- munduko ederrenetarikoak ei dira gai orri buruz. Ortze daukaguz ba gure pinturaren asiera ta astapenak.

Gure arpeak bizileku ta eleiza ditugu, ta antxiñako euskal pinturaren museuak.

Edo, nai ba'dozue, obeto: gure margogintzak eztau asierarik ezagutzen, kondairaren gandu artean galtzen da ta. Amabost-amasei milla urte ei daukiez Santimamiñe'ko orma laukiak. Oteiza'k diñoskunez, or barrutik, illunetik argitara datorkigu euskalduna, bere arte-lanak arnas berotan guri eskeinka dituala.

Baiña itaunez daukagu oindiño gure Luis Kastresana: "Noiz asten da, ba, Euskal Pintura? Noiz bateatua da?"

1621'an jaio zan Azkoiti'ko seme Inazio Iriarte'rekin, bear bada, Murillo'k ain maite eban arekin asten ete da? (Oindiño zurrumurrua dabil euskaldun Iriarte'k margoztu ete zituan, osorik edo zatiren bat, Murillo'ren lauki batzuk.

Ala beste Balerio Iriarte'gaz asten ete da, au be margolari ospetsua?

Ala Durango'ko seme Sebastian Arteaga'kin?

Edo-ta Euskal Pinturea asi ete zan bear bada Kuzko'ko Katedraleko altara nagusian agertzen diran margo-unakaz, Juan Iñigo Loiola Bizkaiko semeak, 1545'an pintatuakaz?

Ala lenago, bear bada, Tafalla'ko seme Juan Kasko edo Juan Napartar, XVI'garrenaren asikera taulak pintatzera Vich ra joan zanagaz?

Ala Frantzisko Mendieta'ren "Jura de los Fueros de Vizcaya" lauki ospetsuagaz?

Ala Juan Antonio Lizasoain'ekin asten ete da?

Ala bear bada... Euskal Pinturaz zeatz eta zuzen mintzatzeko, Baltasar Etxabe aitatu bear ete dogu: Baltasar Etxabe iru dira Orio **Zarra**, onen seme Baltasar Etxabe Ibia **Uriñena** ta beronen seme Mexiko'n jaio zan Baltasar Etxabe **Gaztea**.

**Gure arnasa.-** Noiztikoa dan itaunka jardun arren, ba'leiteke zertzelada asko ziur jakitera egundo ez el-tzea; baiña gauza bat jakin geinke, ta ziur jakin be: euskalduna gizaldiak zear margolari izan dala. Bere itzala ta izen ona urrezko mendetik datorkiola, eta gaurko eguneraiño zabaltzen dala izen orren dizdiz bizia.

Eundaka dira gure artean margogintzari ekin dau-tsoenak; Euskalerrian eta Euskalerritik kanpo, asko be asko dira or zear ibilliak, eta dabilzanak, entzute aunditan noski, European eta Ameriketean batez be.

Amaseigarren girotan bakarrik, zenbat diran kontatzen asi ezker, euskal odola eroien Berrugete'k, Zurbaran'ek, Goiak, Mendieta'k...

Eta euskal odolaz batera, euskal arnasa ta nortasuna ezarri eutsien beti ta nunnai euren margo-lanai.

Euskaldunak, naiz emen naiz an idatzi edo margoztu, bere arima daroa ta arima ori oretzen dau bere idatzi ta laukietan.

Pio Baroxa, zein Madrid'en idatzi zein bere jaioterri Bera'n, beti izango dogu euzkotar, euskal odoleko ta euskal arnasadun; orobat Zuloaga naiz Zubiatur.

---

## EDERTIA

---

Lurrak eta errazak damoskuna, ori ezin dogu geugandik bota.

Naparroan **Orobia, M. Latorre, J. Lumbier** eta **J. Bustamante** ta abar, Gipuzkoa'n **Kastillo Negro** eta **Breheville** familikoak eta Bizkaia'n **Mendieta, Bedia, Vazquez** eta abar, euren eskola ta kutsu nabaria itxi eben egin ebezan margo-lanetan. Beste ainbeste Espaiña'n zear euren eder-lanak zabaldu ebezan pintore ta artista guztiak. Gureak ziran, eta gure jarioan alegindu ziranak.

Emen, alan be, ez luzetzarren, onein artetik aukeratu, ta pizkunde giro barruan lan egiñik, izen aundiko nabari diran lau aitatu doguz: Berrugete aita-semeak, Zurbaran, Goia eta Mendieta.

**Berrugete aita-semeak.-** Pedro Berrugete Palenzia'n jaio zan, Paredes de Nava erritxoan, XV'gn. mendearen erdirantza ta Avila'n il zan 1504an. Italia'tik ibilli zan gaztetan, pintura ikasi ta margo-laukiak pintatzen. Gero, 1483'tik 1499'ra Toledo'n lan dagi.

Ondoren, Avila'ko Santo Tomas komentuko altara nagusia ta Errege Katolikuen taulerra margoztu zituan; berea dau Burgos'n Miraflores'ko komentuan dagoan "Anunciacion" ospetsua be. Avila'ko Katedraleko altara nagusia margozten iñarduala il zan.

Bere kuadrak esku lau-gozoz egiñak dira, flamen-dar eskola kutsukoak.

Aren seme Alonso Berrugete be, Paredes de Nava'n 1490'rantza munduratu ta Toledo'n 1561'an illa, pintore ta taillulari dogu, ospe aundikoa.

Italia'n egin ebazan bere margo-ikasketak, eta Migel Anjel'egaz bear bada.

España'ra itzuli ta Zaragoza'n, Granada'n, Valladolid' en eta Toledo'n lan egin euskun.

Aita-semeok Bizkaikoak ziran jatorriz, Enkartaziño aldekoak, Dario Areitio'k dirauskunez.

Tola'ko markesak be onela diño: "Berrugete leiñu garbikoa, jatorriz Bizkaikoa; Berrugetetarren armariak dizdiz dagike aurrerantzean be Paredes'en, beren goiburu zarrari deduz eutsirik".

**Frantzisko Zurbaran.-** "Erregearen margolari ta margolarien errege" deitu ei eutson Zurbaranf Espaiña'ko errege Felipe IV'ak. Begoña'n eukan bere torretxea, gaur ikuspegi zabal ederreko auzunea daukan tokian bertan.

Badajoz'ko Fuentedecantos'en jaio zan Zurbaran, bere aitita ara aldatua zalako; Madrid'en il zan 1664'an.

Sevilla'n ikasi eban pintura, lan be berton egiñik iñoiz aspertu barik.

Eundaka dira aren lanak gaur be ezagutzen doguzanak, baiña Sevilla'ko komentuetan egin zituenak batez be.

Erregeak 1634'an Korte'ra deitu eutsan, Erriñu-Saloia margoztuteko.

Len eliz-gaiak ziran Zurbaran'en geienak; gero, Velazquez eta Riber'k eraginda edo, gudarien eta antxiña-ko mitoloji-gaiak erabili euskuzan geien bat; olakoz bete zituan erregearen jauregi ta saloietako orma ta sapaik.

Jerez'ko Kartujan egin eban bere lanik bikaiñena.

Bere garaiko margolarien artean, Goia ta Velazquez'egaz batera, munduko onenetarikoan artean daukagu.

**Goia.-** Odolez euskalduna au be, gipuzkoarra. Zaragoza probintziko Fuendetodos'en jaio zan, bere aurretikoak -margolari noski, ara aldatuak ziralako.

Erregearen pintore izan zan au be. Berarekin erioan eusko arima.

Kanpion k bikain: "Gure zeru arrear urdin ikutuak dagoz, eta leioak asmamenari edegiak. Egiakaz jaio oi da euskalduna: ibilli nai dauan lurra, inguruko giroz, latz, esker txarreko naiz doillor iruditzen ba'yako, egoak zabaldu ta egaz dago goiak zear nasai".

**Frantzisko Mendieta.-** Onak margoztu euskun XVI'gn. gizaldian Fernando Katolikua, Espaiña'ko erregeak, Gernika'ko Zugatzaren azpian, Bizkaiko Foruak aintzat artu ta zaintzeko zin egin ebaneko lauki ederra.

Gure Bizkaiko Foruak 1839'an, indarrez edo-ta maltzurkeriz kenduak izan arren, gaur indartsu barriz eskatzen doguzan garai onetan, gogoan artu bear doguna nunbait.

Fernando errege gaztea jarrita agertzen dan aulki apañaren erdi-azpian idazkun au dator euskeraz: "Au da nola milla ta laureun ta irurogeta amasei urte ta garagarillaren ogeta amargarren egunean Errege Jaun Fernando Bostgarrena Gernikako Arbolaren bean bizkaitarrai konfirmadu eginezan euren Foruak ta eurak jauntzat eukitea".

Lauki aundi, ederto egiña. Kondaria aldetik jakingarrria. 1609'an margoztua, baiña 133 urte aurretiko jazoera bat dakarskuna. Orduko lege-oiturak leialki jarri euskuzan; baita Bizkaiko jauntxoan etxe ta familiak eta euron jantziak be. Nungoa ete zan artista au?

ONAINDIA



---

## OXIN BATEN, IRUDI BI

---

Aldi luze bat igaro ta gero, zetarako geratu ete nintzan uri txiki aretan?

Baratz elkor baten orbelez beterik egoan oxineko ur-lotuan, nire aurpegiaren gerixa ikusteko izan ete zan? Ara eldu nintzanean, orixe izan ezik, beste errazoirik eneukan.

Itxasotik eta itxas-aldeko uri aundienetatik etorriaz, goierri ta barruko lurraldeen egarri nintzan; kale estuen eta urteetako euriaz baltzitutako orma-zaar ixillen laguntasuna gura neban. Guzti orreik nun aurkitu ba-nenkian, uri txikerrean: bost urtean, diran ikaskizunik ametsetakoena ikasi nebazan toki aretan.

Makiñabat bider etorten jatan gogora uri maitea: atzerriratu bailitza, bakar bakarrik aranaren erdian (nire uste kaskarrean, euren aberritik jaurtiriko uriak be ba-dira) ibairik ez, ezta dorrerik eta kanpairik be; zugatzak nunon bat; baiña guztiz baketsua ta eroapentsua ikusten neban, errege-sendia barriketa zoroan edo lo egoan jauregi arroaren inguruan.

Kaleetatik zear joan bazoaz, eun-pausorik eun-pausora ur-aska bat aurkituko dozu, ta aren ondoan iturritxo bat. Itur-gaiñean buztinezko gudari bat, urdiñez edo gorri motelez margotua.

Neure ikastaroan, praille bizitza egin neban etxea be gogotara jatortan. Nire etxeko leioak enparantza barik etxez ingurututako baratz batera begira egozan. Baratz ertz batean, oxintxu bat egoan, gizon eskuz antolatutako atz-txikiz inguraturik. Baratz ori iñork ez eban zaintzen. Agure zaarra lurpean egoan eta aren alaba elizkoia, bizitzaz gogait eginda, siñeste bakoan irudi jakozan zugatzetaz etzan arduratzen, ezta zirikatzaile arro iruditzen jakozan loraetaz be.

Oxintxu a be ilda egoan, aren erruz. Barrenetik len etorkion ur txirristada agortu zan. Begi-aurrean neukan ura, nekatua itxuraz, geldirik egoan. Aspal-dian aldatu bakoa zirudin. Orrez gaiñera, orbelez ia guztiz estaldua egoan; joandako gizaldietan, udagoienetik udagoienara jausiak zirudien. Uri txiki aretan bizi nintzanean nire poztasun-aldiak baratz onetan igaro nebazan. Neuk gura izan ezkerro edozein ordutan sartu neitekean bertan. Ikastordua amaituaz batera, idatzi bat besapean, oxintxuaren ondoan jartzen nintzan. Irakurten aspertukeran, edo

illunabarra zanean, neure begiak ur ispilluan ikusiaz, edo orbelak zenbatuten, eta orbelok aize ozkirriak eragiñaz erabillezan joan-etorriekin jolastuten nintzan.

Orbelok, batzuetan alkarrengandik urrintzen joan oi ziran; urrengoan oxin erdian alkarganatuteko. Orduan ur-barruan neure aurpegia ikusten neban. Luza-ro ari begira, neure soiñaz banaturik illa bainintzan lez, betikotasun osorako oxinean jositako irudi bat nintzala uste neban.

Zer guzti oneik buruan, uri txikira eldu baiño ez, antxintxikaldi baten baratzetatu nintzan. Urte asko joanak ziran, baiña uria lengoan. Lengo kale estuetatik an joazan, euren txano zarpilduekaz, lengo andra txiki ulegorridunak. Buztinezko gudariak, alperriko barregarrikeriak ezpata ertzetan auzperturek, lengo lengoak ziran iturri gaiñetan.

Baratza be itxi neban lakoa. Oxintxua be antxe egoan neure aberriratutzean azkenengoa ikusi nebana berbera.

Zugatzak adarren bat geiago; oxinean orbelak ugariago, gaiñontzekoa lengo-lengoa. Nire aurpegia oxineko uretan dizdiratua ikusteko aurreratu nintzanean, au etzan lengoa; osoro aldatuta egoan, eta ni lengoa gogoan.

Toki aretan, oxinearen ondoan izan neban gozotasuna, barriro biztu zan nire barruan.

Oxin ondoko atx baten gaiñean esarri ta neure eskuaz orbel-orriak bultzatu nebazan bazartuaz orrela nire aurpegi antzaldatuari ispillu aundiago bat aurkeztuteko.

Neure irudiari begira, bizitzaren igarotzea gogoan neban bitarte aretan, nire irudiaren ondoan, uretan beste irudi bat agertu zan. Oldartsu atzera begiratu neban: gizon bat neukan alboan bera be oxinearen sakonera adi. Ametsetan lez begiratu neutson. Oxinera jarri nintzan eta antxe egoan bere irudia sakonaren illunpean. Une baten jabetu nintzan egiaz: aren irudia neurea zan, zazpi urte leenago uretan ezarria. Beste aldi baten ikuskizun orrek ikaratuta oiuka jarriko nindun ziur-ziur, aaztu eziñezko buru auste baten kateetan lotua dagoanaren antzera, baiña ordurako ba-nenkian, eziña egiña izatera elduten dala batzuetan, ta ori zala bide, enintzan larregi bildurtu.

---

## IPUINAK

---

Luzatu neutson neure eskua gizon areri eta bereetan estututen nindun bitartean, "I ta ni bat gozak" esan neutson; "antxiñako ni, illa intzala ta ona emen itxi eutan lakoa, aldatu barik, barrero ikusten. Len izan nintzoan orrek, zer gura dokan ta zertara atorran etxakiat, baiña dana-dala, eskatzen deustakanik eztiat ukatuko."

Gizon arek ezagutuko banindukean lez, apur bat bildurrez goitik bera begiratu eustan; zalantzan apur baten egon ta gero, "irekin egon gura neukek" esan eustan. Betiko agur eginda uri onetatik joan intzoanean, ni ementxe, uri onetan gelditu nintzoan; egunik eztoan leku onetan iñoratu barik, ezer egin barik, eu noz etorriko. Ba-nenkian agertuko intxoana. Ire gogoaren zatirik xeena, oxin onetako uretan itxi eidean, eta gogo izpi orregaz gaur arte bizi izan nauk. Baiña orain irekin batu ta alkartu gura neukek, ire ondoan egonaz azken urteotako, ire bizitzaren barri emon daitakan. Ni len nintxoana nok eta etxakiat ikorduan eukianaz ganera ezer. Ase eidak nire jakin eta entzun gosea. Artu nagik laguntzat barrero, aldia igaroten eztan uri onetatik urten daikan arte".

Neure buruaz baietzkoa emon, eskuak anaien antzera alkarri emon ta urten gendun baratzetik.

Beste iñorenaz antzik etzeukan neure bizitza onen aldirik bakarrenetako bati, orduntxe asiera emon neutsan.

Izana nintzan aregaz, neure buruaz, uste bako, egun alaitsuak igaro nebazan.

Nire nortasun biak, an joiazan arri-landuzko kaletatik zear, uri aretako aspaldiko ixiltasunean murgildurik -ixiltasuna, gitxienez XIX gizaldikoa zanaterrene bako alkar izketan giñoiazan, ikusitakoen barri alkarri emonaz; ezagutu ebazan gizonak; bizilagun izan ebazan uste ta jokabideak, euren gogoe-tan garraztasun bat itxi eutsen ametsak eta abar.

Gogo biak -lengoa ta gaurkoa- Ikastetxe Nagosia, mendiko lekaidetxeko obi-ixiltasunez jantzitakoa bil-latu eben batera; prantseseraz apaindutako lorategian ebiltzan. Joan ziran jauregi ostera, ango giza-irudi apurtu ta erdoinduak ez eutsen begirakuntxo bat be jaurtitzen ango amaibako ibil-tokiei, onetan "Lilieuse" raiño eldu ziran. Au etzan ganora barik egindako oxintxo bat baiño, ala ta guzti be antxinako errege-semeak aintzira deritxoen. Alkar izketa gozoan emondako egun arek biotzeko kirikirri gozo bat barik ezin neikez nik gogoratu.

Baiña gozotasun onetan egun batzuk joan ta gero, neure lagunaren batiko leloaz, adiera eziñeko neke

bateaz aspertzen asia nintzan. Aren umekeri batzuk; aren kirtenkeri ta kiñu zoroak gogait eragin eusten. Gaiñera itzaldi aspertu batzuen ostean buru-arin utsa zala ikusi neban. Antxinekoetara egoan buruz eta biotzez, edozein zer edo norgaitik ezi bakoan tanke-rako goraldiak etorkiozan, nik zorionean guztiok aaztuta neukazan.

Berbetan nai bertso irakurten, sineskor utsa zan, edozer ataraten eban bere praketatik, guztiok barriz -gora-galea edo irriparre motel bat baiño ez eusten ataritzen niri.

Aren izatean burua barik biotza zan jabe; orraztu bako ule-mototsak, zorigaiztoko mendiak, zugadi itzaltsuak, ekaitz eta gudaketa, tximista ta abarotsa ebazan maite. Aren biotza tantaka urtuten zan (lora urdiñak, illargia edoi artean, maite ninduen illobiak, gabaz zaldiko ibillerak) orain eun urteko biotz-bigunegien eta ulegorridun andereiño gizenduen antzera. Aren arrokeri zoroak mundua ez ezagutzeak bizitzaren sakonaren ez-jakite andiak, asiera baten jolastu baninduen be, andik laster errukia sortu eben nigan eta gero nazka.

Gogorkeriren bat esateko, nai andik iges egiteko neukan gogoa asiera baten menderatu neban; baiña goiz baten, arropuz -prakak be artu eziñean- bereak eta bi esan ondoren nire gaitzezpena gorroto biur-tzen zala oartu neban. "Alan ta guztiz be -neure kol-korako esan neban- barregarri jatan, gazte ez-jakin eta lotsa-txarreko au, beste aldi baten neu-neu izan naz. Ondiño be zelan edo alan bat gara biok. Ni neu urte luzeetan bizi izan naz, ikusi egin dot, igarri, ol-doztu. Berau ostera or gelditu da bakartadean, iñok ikutu barik, lurralde au itxirik emendik joan nintzan egunean izan nintzan lakoa. Orain gaur, ikusi emen nire izate biok, lengoa ta gaurkoa alkar joka.

Aldi aretan, gaur baiño geiago, gizonetan gizona-na, bera betekoa, azia ta andikia, jakintza osoaren jabe, etorkizunaren jauna nintzan nire uste motelean. Ta ondiño etxat aztu, orduan nire ume-aroa gaitzez-ten neban ondiño ezi-bako nire len-aroa, ume-kondo ta ez-jakiña nintzanekoa. Len umea gaitzezten ebana bera gaitzezten dot nik orain. Eta len bertan-bera itxi nebanak, eta gaur arbuiazaille danak, izen bat euki dabe, soin baten bizi dira ta bizidun bakar baten agertu izan dira gizonen aurrean. Nire gogoa epai-tzeko be sortuko da norbait, gaur nazan onen ostean, nik gaur atzo izan zana epaitzen dodan era berean epaitzeko. Nor errukituko jat neuk neuretzat errukirik ezpadot?

Ni neu egi oneik oldoztuten nengoala, nire lengo nortasuna, parra-parra itzegiñaz ekiñean ari zan; sekulako arrokeriaz.

Nik zer esanik ez ta ixiltzea erabaki neban. Berak be ez eukan zer esanik baiña ixiltasunaren ordeza amaibako olerki ta esakera nazkagarriak jaurtzen ebazan.

Gu bion artean, zer egon orain antzekorik? Antxiña joandako egunen oroipenak amaituta, oraintsu igarotakoetzaz, nire bizitzan gero aurkitutako edertasunaz, ainbeste maitatu ta apurtutako biotzetaz; tea artukeran mai gaiñean bururatutako egiaz iruntzitarakoetzaz, eta une onetan nire gogo guztia betetan dauan amets mingotzaz, ezin neutson ezertxo esan.

Alperrikoa guzti orreik esatea: ez eustan ulertzen. Jazokuna gogoratuten eustan berbotsak, izen batek nire barruan sortuten ebazan taupada ezitutsuak, usain gozo batek, aren gogoari tutik bez. Berak bein ta barriz nire berba eskatzen eban ta aren esanera etorten banintzan jakin-miñaz entzuten eustan. Baiña bere barruan ez eban ezer somatzen, ez eustan ulertzen, eta esaten neutsanaz ez zan berpizten.

Bere begiak zuriz-gora, ni ixiltzen banintzan berak, lengo esakera ta olerki jarioan jarraitzen eban.

Eldu zan egun bat -gogoangarria- lengo nire nortasunari neutsan gorrotoari eutsi eziñekoa. Ezin geinkeala alkarregaz jarraitu, esan neutson orduan, kementsu; eta neure atsekabea estaltzeko beiñena bera barik ibiltea zala. Nire izketaz arriturik, itunduta geratu zan. Bere begiak niganatuz, zerbait eskatzen eustan ta bere eskuak iñoiz baiño geiago estutu nindun.

Zer dala-ta ni itxi? esan eustan bere abots griñatsuz. Zer dala-ta itxi gura nozu bakarrik barriro? Ainbeste urtean ixilik egon naiatzu, une onetara urreratuten ninduen egun eta orduak zenbatuz! Eta orain neugaz zaukadazanean, ta maite zaitudanean, igarotako egunen oroipen gozoaz, maitasunaz eta munduaren edertasunaz diardugunean, bakarrik itxi gura nozu, uri il eta bakarti onetan?

Gorroto kiñu batez erantzun neutsan. Baiña alde egitera jarri nintzanean, beso batek oldartsu estutu nindun eta negar zotiñetan esaten eustana entzun neban.

Ez, ez az joango! Ez aut itxiko alde egiten! Nire zorionaren andia orain ulertzen nauan bateri itzegitean, ondiño biotza bero daukan bategaz egotean, bizien uritik etorritakoaz nagoanean. Zorionekoa bai nire autorkizunak nok entzun eta nire oivaz nor erru-

kitu daukadanean. Ez, zu etzara joango! Ezingo zara joan! Sekulan ez aut itxiko alde egiten!

Oraingo onetan be ez neutsan erantzun, eta egun osoan alkarrekin egon gintzazan, ez bata ez besteak ezer esan barik.

Burutik oiñetara begiratzen eustan ixilik, eta ni nora bera be ara. Urrengo egunean joateko gertau nintzan, baiña ate aurrean jarri zan eta eneban izan urteterik egun aretan, beragaz egongo nintzalako berba emon neutson-arte.

Orrela joan ziran lau egun. Beragandik alde egin gura neban, baiña ni nora ta bera be ara. Bere ekiñaz aspertzen nindun era berean, indarrez batzutan, uritik alde egiten ez eustan izten.

Nire gorrotoa ta ondo-eza ordutik ordura aundia-gotzen joiazan. Azkenez boskarren egunean alako barrandariagandik iges egitea eziña zala ikusirik, bide bakarra aukeratu neban, bere kerispea atzean neroala oldartsu urten neban etxetik.

Egun aretan be, bere gogoaz ta bere irudipean ainbeste ordu igarotako baratz igartura joan gintzazan. Egun aretan be orbelez beteriko oxin illera urreratu giñan. Atx antzeko aretan jarririk geure eskuek kaz orbelak kendu genduzan gure irudiak ikusteko.

Gure aurpegiak alkarren ondoan, uretako ispillu illunean agertu ziranean, atzera begiratu neban, artu neban sorbaldatik nire lengo nortasuna ta buruz aurrera uretara jaurti neban, bere irudia agiri zan toki aretara.

Sakoneratu neutson burua, eta antxe, neure gorrotoaren indarraz geldirik lotuta euki neban. Berak urten-guraz amaika alegin egin ebazan, izterrai eragiñaz, baiña burua antxe egoan barruan gaiñeko ura dantzari ebillen bitartean.

Apur bat geroago, bere gorputza auldu eta bigundu zan. Nire eskuak itxi ebenean sakoneragotu egin zan, osoro murgilduaz.

Nire lengo nortasun gorrotogarria, joan ziran urteetako nire izate barregarri ta lotsabakoa, bein betiko il zan.

Baketsu urten neban baratzetik eta uritik. Iñor be etzan artegatu jazokun onegaitik iñoz. Eta orain banabil munduan, itxasertzeko uri andietan. Iñoz alaitasunak barre zoroka bidera urtetan badaust, bere burua ilda gero, ondiño bizirik jarraitzen dauan gizon bakarra nazala gogoratzen jat.

PAPINI-GARITAONAINDIA'TAR GOTZON



---

## IRANTZUKO MONASTEGIA

---

Poz-ekarle jaku gaur, alan be, izkuntza geienetan turismo, turist eta olako itzakaz ezagutzen dogun za-lekeria.

Urte osoa lanari loturik egin ondoren naitaezkoa dala diño askok; gorputz eta arima, biak, bear ei dabe atsenenaldia.

Nik neuk urteetan ez dot egun banakaren baten izan ezik, olako nai-egoterik izan. Alan be munduak ori diñoanean eta ori eskatzen dauanean, naitaezkoa izango dalakoan nago.

Aspaldian, baiña, opor egunen bat artu bearbada be, ez naz alez euskal-erritik asago joan oi. Bertoko giroa, lurra eta jentea naiko jat ortarako.

Euskaldunik asko -beti gu ibilteun amorratu- bere erritik anka egiñik, bere sorlekutik kilometrotara doaz egun, aste ta illetarako.

Askotxoak diñoskunez, kaltegarria gure erriarantzat.

Urrin goaz bazterrak ezagutzen, eta ez dakigu etxean zer daukagun.

Urli lekua, erria, mendia, nundagoan. urrin, mugaz beste aldetik, Añamendi gainean... ezeren zeaztasun gabe; ez dakizu ezer.

Izenak dirala-ta, itandu egiozuz "Izaskun" adibidez nun dagoan eta erantzungo dautzu: An Naparroaldean.

Lotsagarria benetan askoren ez-jakin utsa.

Ni neu asko ibillia nozu euskalerrian, erriz eta lurrez.

Beti esan dot: "Geurea lenen". Eta orixe aolkatu dautset neure kideai be.

Askok ez dala, ba, goizetik urtenaz Lizarra'n gintzazan, ango bide, zoko ta erriskak ezagutu nairik; emen ordu-erdi bat egiñez, napar goirantza joateko asmoz genbiltzala be, Donostiara'ko bidean jarri gintzazan.

Lendik be, ni, iru bider beiñik-bein egona nintzan arren, nire adiskideak ez, eta Abartzutza'ra eldu giñanean, Irantzu'ko Monastegia ezagutu gurea agertu eustan, eta bertan ezkerreko bidea artu, eta mendi artez etorren bideari, errekonoz errekonoz etorrenari jarraituz, Monastegi antxiñako, apin-apaiñean gengoan.

**ISTORI PIZKAT:** Toki bikain ontako eleiza jagi, batzar leku galant, jantoki zabal eta bazterrak begiratu ostean, kanporantz artu dogu eta bertatik aurrez-aurre, praillea ez dala diñoskun eta praille jantzirik dabillen atezaifia; bertako gomutaki lez eskura damosku liburuxka polita, euskeraz. Pozik artu dautsagu adeitsu eskertuz. Berton dator, polito emonda, monstegi onen istori apurra. Onan diño:

"Dirudienez, XI mendean bakarti-etxe bat egoan, beneditar ordenarena. Zaindaria, San Adrian. Eta au desagertu zanean, San Bernardok sorturiko Zisterter Ordena berri batek artu zuen beretzat monastegia.

Lekaide oneik 1176'ean iritsi ziran Irantzu'ra eta Iruñeko GOTZAINAK Pedro de Paris jaunak bereziki lagundu eutson fundazio oni Bere anaia Nikolas, Orlean'dik gertu dagoen kuria deiko Abadiaren monje zizterziarra fundazio berriaren abadea izendatu eban.

Irantzuko monastegia Truneko Apezpikuaren ekimenez sortu zen. Gainontzeko Zizter Monastegiak Errege fundazioak ziren.

Dena den, erregeek donazio ta pribilegio asko eman zioten, adibidez Antso Jakitunak monastegiko abereak errege mendietan larratzea baimendu zuen.

Geroago Antso Azkarrak, bere arreba Konstanzak, Teobaldo I'ak eta Teobaldo II'ak komentua donazio askorekin ornidu eban. Irantzu'k jabetza aundiak izan zituan, lurak, larreak, errotak, elizak edo erri monastegi txikiak, eta baita etxeak, jauregiak edo berriak ere. Bere jabetzak Nafarroa osora edatzen ziran. Monastegiaren inguruko eskubideak, Abarzutza eta Ibiriko esate baterako, gune garrantzitsuak zelarik. Ala ere, jabetzak Erresumaren beste zenbait tokitan ere kokatzen ziren. XIII mendean Urantzua, Burunda, Milagro-Erribera, Goñibar, Izarbeibareta Iruñerria besteren artean artaratuz Nafarroatik kanpo Donostian monastegi bat eduki zuen denbora gutxiz, eta Andaluzian, Errekonkista garaian, Alfontso Jakintsuak berak lurak eta etxeak eman zizkion Kordaba'n eta Sevilla'n.

XIV mendean, Irantzuko Monastegiak aro kritikoa izan zuen. XV menderaño iraun zuen bat Nafarroa ondatu zuen guerra zibila izanik. Komentuak agramontesen alde, egin bait zuen, Kastillari erans-teak, izendapen eta administrazio eraso batzuk ekarri

zituen, Felipe IV'aren erregetzara arte konpondu ez ziranak.

**2) BANAKETA.** Istori-zati inportante au, olako orrietan besterik ezin daik egun ezkeru, urratska eta azal samarretan emonik, Irantzu komentuko barri damosku idazleak. Gure jakin-naia asetzeko ona da, bioa emen zati ori geure lanaren edergarri.

**BEA:** Iru nabe luze ditu, gurutzadura eta burualde luze irukoitza zutabe sendoak eusten diete arku zorrotzak nabeak bereisten dituelarik.

**Estalkia.** Eliza, fajoi arku sendoek eusten dieten gurutze gangez estalia dago.

**Euskarriak.** Estalkien nerbioak mentsuletan oinarritzen dira fajoi-arkuak kapiteldun zutabeetan.

**Dekorazioa.** Dekoraziorako elementu bakarrak kapitela eta mentsula auek dira, non lanarengai oso eskematikoak lantzen dituzten, zister estiloaren arabera.

**Leioa.** Barrukaldea leio batzuek argitzen dabe, argia presbiterioan, bereziki, biltzen delarik, leiate irukoitza eta errosotoi zentralarekin.

**Kanpoaldea.** Kanpoaldea bere arlandu-ormen indarragaitik nagusitzen da.

**Eliz-ataria.** Oñean erdi-puntoko arku txaranbelduko elizatari sinplea, lanadare-kapi sinple eta zutabe leunekin, irekitzen da.

**Sakristia.** XVII mendearen leen erdialdeko gela bat da, kaiñoi, erdiko gangaz, estalirik eta oin laukitua dauala.

**Klaustroa:** Klaustroa XII'garren mendearen bukaeran edo XIII'aren asieran eraikitzen asi zen eta XV'garrenerarte luzatu zen eraikuntza. Lanen iraupen luzeak adierazten du zister estilo, garbienik, eliza ondoko ormartean ikusgai, gainerakoan nagusitzen den gotiko estilora pasatu dela.

**Galeriak.** Alderik zaarraneko erdi puntuko galeriak iru gingiladun konplikatutako idibegidun arku zorrotzakin diseiñu konplikatutako aldearen ondoren gotiko garbi batekoak, datoz

**Estalkiak eta kapitela.** Gurutzerian diran ostokapiteleak eder-bide berean parte artzen dute, Zisterreko bide eskematikoetatik gotiko izadi girora igaritzen dirala.

**Esku-ikuztegia.** Oinplanoa poligonal eta gotikoa da, 1942-an egindakoa berriz ikutua izan bada ere.


**Barrutik zoramenez kanporaturik,** inguruak begiztatu genduzan zeatz be zeatz txunditurik geratu giñiala toki eder aregaz eta bertako gauzakaz. Gure aurre-

tiko euskaldunak ba ekien nun eta zelako lekuak aukeratu euren ixil-egoitzak jarteko.

Ierri zabalak, eta antxe bertan Abartzatsu'n bat, naiko dira, antzekoak ez da be, toki begiragarri eta monumentu ikusgarriak. Guk, alan be, gure burubidea beste bat zala-ta, lurralde apain oneik ikuskatzea beste baterako itxiz, Obanos, Iruña eta Aoiz'tik zear, Orreaga'rako bideari ekin geuntson.

Eta istoriz beteta daukagun Pirineo inguruko Santiago'ra joiazan erromes pilloak maite eben Orreaga barrenak eta Ibañeta agurtu eta bertako aize ta ederrak txastatu ondoren, illuntzeko bederatzietako Larean gengoan.

AITA ONAINDIA



*Gure Xabier Peña'ren Euskal-Izaskibidea Nafarroa'ko euskeraz argitaratu dau Aralar'eko abadea dan Inozentzio Aierbe'k.*

# GUZURRA DIRUDI, BAINA EGIA DA

Lengo egun baten gogo-itunez, neure bizitzari buruz guzurrik andienak idazten nengoala, atean norbaiten daunbada ariña entzun neban. Baiña enintzan jagi, ezta erantzun be.

Ate daunbadok motelegiak ziran eta lotsatiekazko artu-emonak ez yataz atsegin.

Urrengo egunean, ordu berean, ate-otsa barriz; oraingoan idartsuago eta oldartsuago; baiña egun aretan be eneban aterik irigi, bide okerretik ariñegi aldatuten diranak be ez jataz atsegin-eta.

Urrengo egunean, eta beti ordu berean, barriz ate-otsa. Oraingoan gogorrean, eta neu jagiteko astirik emon barik, atea zabalduz, txiki ez andi, bardingoa, zan gizon gazte bat sartuten ikusi neban. Matraillak gorri bizi, buruan barriz ule gorri kizkurtsua, itzik be atara barik makur-makur etorran.

Jarleku bat aurkitu orduko, bereala etzun zan, eta ni zutunik ikustean. beste aulki bat erakutsiaz jesarteko kiñua egin eustan.

Bere esana bete orduko, nor zan galdetzea egoki neritxan eta bape gozotasun barik eskatu neutson arren agertu eistala bere izena, eta nire gelan sartzeko eukon errazoaia.

Baiña nire gizona etzan aldatu, gitxi ez asko; ta aditze-ra emon eustanez aurrerantzean, ordurartekoa izan gura eban niretzat: ez-ezagun bat.

"Zugana etortzearen errazoaia neure sakel onen barruan daukat, eta laster agertuko dautsut", esan eustan irribarreka.

Egia zan, narruzko kartera bellegi loi bat ekarran eskuian, burdin oriz ornitua giñera; zabaldu beingoan eta idazti bat atara eban.

Lora gorridun azal zaarra eukan idazti bat erakutsiaz esan eustan: "Idazti onek, neure buruz eginda, neuk idatzitako edesti bat dauka. Berau baiño eztoz egin neure bizitza osoan, eta nire uste motelean atsegingarri izango jatzu. Orainartean entzutez baiño etzaituz ezagutu. Oraintsu lengo baten, asko maite zaitun emakume batek, norbere buruaz ikaritzen ez tiran gizonetatik bat zu zarala esan eustan, eta gure antzeko askori eriotzarako bidea emoteko oldarra izan dauan gizon bakarra.

Guzti orregaitik, joan-etorri ta jazoera bakanenak bizi izan dauzan neure irudimenak sortutako gizon onen bizitza irakurtera etorri naiatzu.

Entzun daidazunean esango daustazu zer egin. Atsegingarri bajatzu, urtebete barru entzute andikoa ta ospetsua egin bearko nozu; eta bestera balitz egun bi barru gorpu izango nozu.

Baldintza oneik onartuten badozuz, astera noa.

Ordurarteko egoera otza luzatu baiño besterik ezin

nengiala ikusirik, kiñuka, gozotasun barik entzungo neutsula eta bere gurariak beteko nebazala adierazo neutson.

Gizona asi zan irakurten. Lenengo itzak galdu egin nebazan; urrengoak ez ostera. Andik laster, belarriak erne, sorbaldatik bada-ezpadako zirrara joan jatan. Andik laster nire matraillak sutan egozan; izterrak eta belaun-buruak dantzan; nai ta naiez jagi bearra izan neban.

Ez ezagun arek, irakurtea itxita, bere aurpegi osoaz apaltasunez zerbait galdetzen eustala begiratu bat egin eustan. Neuk be begien bidez galdetu neutson zerbait. Baiña neure egoera zala ta andik kanpora bialtzeko indarrik ez neban izan. Edozein kokolok esango eutson auxe esan neutson: "Jarraitu, mesedez."

Irakurle bakan arek jarraitu eban. Ni bien bitartean, aulki barruan, urduri nengoan. Danean otzikara, ez bakarrik sorbaldan, baita buruan eta soin guztian be. Ispillu baten aurrean jarri izan banintz, neure buruari barre egiñaz, egoera a aldatuko neban, ziurki, neure aurpegia zurbil eta mingoztasunez bete ikusirik.

Une baten irakurlearen zurrumurruari jaramonik ez egitera jarri nintzan, baiña gura nebanik ez ta beste edozer lortzen neban. Egoera orretan, itzez itz gizon burugorridun arek idazti andi eta apain aren gaiñera makurtuaz taka-taka irakurten eustan dan dana entzuten neban.

Zer egin bear ete neban egoera bakan aretan edo zer egin ete neikean? Idazti a artu, zatitu, zapaldu ta sutara jaurti? Beso-ondotik oratu irakurle madarikatu a ta mamu zorigaiztoko bat bailitzan gelatik kanpora atara?

Baiña zer dala-ta egingo neban ori? Alan ta guzti be, irakurle arek adierazi ezin neikean nazka emoten eustan. Betiko lotan, azkenik bako amets zantar batek lez saminduten ninduan.

Labur esanda, amaitu eban irakurtaldia. Zenbat ordu-tan ekin eutsan eztaikit, baiña neure egoera urduritsuaren kolkoan auxe ba-nenkian: irakurleak iztarria marrantatsu eukan eta bekokia izardiaz ondatua.

Azkenez idaztia itxia izan zan eta barriro bere sakeltxuan ezarria. Ez ezagun arek, zerbait jakin guraz begiratu eustan, baiña bere begiak ez eukazan len ain bizkorrak.

Nire aultasunaren andia oartuaz, eta begi bati azka nengoala ikusirik, mire eginda ezer esan eziñik geratu zan.

Une aretan eneban uste barriro izketan asiko nintzanik; inguruan egunero neukazan zer guztiak otoz otoan ia bildurgarri egin jatazan.

Jazokun guzti onek zantar eta lotsagarri dirudie, baita neure bildurrarentzat parkamenik bape eztoan onentzat be. Baiña ondo-ez arek errazoi bat eukan eta ez makala. Gizon arek irakurritako edestia neure bizitza kutunenaren

edesti zeatzena zan osoan. Epe labur aretan, mundu onetara etorri ta gero asmau, egin eta amestu nebazan guztien kontu zeatza entzun neban.

Ikusi ezinak ikusten, eta biotzak ezagutzen dabillen zerutar izaki bat jaiotzatik nire ondoan egon izan balitz. Nire gogorakizun eta egite danak idatzi baebazan, gizon ez-ezagun arek bere buruz ataratako aren bardin-bardiña idatziko eban.

Jazokunik xeenak, izkutuenak, antxe egozan: ametsak, maitasunak, lotsagarrikeriak, antxe egozan bat be galdu barik.

Aztuta neukazan gogakera ta jazokun asko be idatzi aretan egozan, eta orain entzutean danak etozan nire gogora.

Nire lotsa ta bildurraren sorkera zeaztasun urdurigarri axe zan: Nik neuk ez neban ezagutzen gizon au, eta berak be orixe iñoan, ez nindula ezagun.

Bakarrrik bizi nintzan; bear izanak eraginda izan ezik, iñor ezatorren uri baten. Adiskiderik baneukan bateri be ez neutson emon, neure eizean ibiltean, biotz-lapurtzeen eta amets zoroen zaletasunaren barri.

Iñoz ez neban idatzi ez neutretzat ez beste iñorentzat nire bizitzaren barri zintzorik emongo leukeanik. Egun aietan alan bear ta, ilda gero be nire bizitza kutuna estaltzeko guzur batzuk idazten nenbillan.

Nok esan eikiozan, gizon areri lotsarik eta erruki barik azal ugerdun idatzi gorrotogarri aretan esaten ebazanak?

Esaten eustanez, guztia zan asmatua, ta neure bizitza osoa asmatua balitzakean lez aurkeztuten eustan. Guztiz ikaratuta ta jota nengoan, baiña bat zan egia: idatzi a gizonen eskuetan etzan sekula jarri bear. Idazlea ortarako il bear bazan be naiago neban au, neure bizitzaren barriaz nire arerio izkutukoak jabetzea baiño.

Neure barruan artu neban erabagi sendo onek guztiz baretu nindun. Aurrean neuri begira neukan gizona, eskeko itxuran egoan. Irakurtzea amaitu ebala miñutu bi baiño ez, eta ondiño nire ikerazko egoera ez eban ulertzen.

Azkenean etorri jatan itza:

"Parkatu, Jauna" -esan neutson-. "Egi-egia da, edesten dozun au zeuk asmaurikoa dana?" -"Bai" -erantzun eustan apur bat baretuaz-. "Urte askotako lanaz neuk asmau dot. Noizean bein orraztualdi batzu emonaz, neure gizon onen bizitza apur bat aldatuaz. Baiña oso-osorik, dandana,neuk asmaurikoa da."

Berba oneik bildur andiago bat emon eusten, baiña ondiñokarren beste itauntxo bat egin neutson: "Esan egidazu arren bene-benetan, enozu gaur arte ezagutu? Ezagutzen nauan baton-batek ez ete dautzu nire bizitzaren barri emon?"

Ez-ezagun arek, nire berbok entzutean, nai ta naietzko irriparre bat egin eustan.

Esan dautsut -jarraitu eban- oraintsu arte zure izena baiño enekiala, ta lengo egun baten eriotzara bidea aolkatzen dozuna zareala esan eustela. Baiña besterik ezer eztoz jakin.

Aren epaia ainbat ariñen bete bearrekoa zan. Baretasunez itaun bat egin neutson: "Irakurri aurretik zuretzat zeuk jarritako baldintzak betetako gerturik ete zagoz?"

Abots motelaz "Bai, lengoan nago" erantzun eustan. Eztaukat beste aterik joteko, ta lan au nire bizitza osoa da. Nire ustez eztaukat beste zeregiñik.

"Bearturik nago ba" -erantzun neutson lengo baretasunaz -apur bat itun nengoan arren- "egia esatera. Edesti ori, gogaitgarri, aspergarri, burubako, zentzumbako eta gorrotogarri da. Zure ustean, bete-beteko asmau dozun gizon ori, irakurle argi guztientzat gorrotogarri ta atseka-begarria izango litzake. Epaille zorrotzegia izanaz eztoz besterik esan gura."

Alako erantzunik ez eban arek itxaroten, eta nire bildurraren gaiñera, bat batean begiak itxi ebazan. Alan be ondo ikusi neban aren gizontasuna eta buru-jabetasuna bat zirala. Bereala zabaldu ebazan begiak barriz; bildur barik eta gorroto barik, baretasunez itxuraz beintzat, itaun au egin eustan:

"Lagunduko zeuskit?" "Bai pozik" -erantzun neutsan- ta buruan txapela ipiñita ixil-ixilik urten gendun etxetik.

Gizon ez-ezaguna, narru orizko kartera besapean ebala joian, ta ni aren jarrai; amesetan lez niñoian arresi baltz tartetik zurrumurrutsu joian ibai ertzera iño.

Bere inguruetara begiratzuz gaizkatzaillerik etzeukala ikusi ondoren, begiratu ta esan eustan:

Parkatu, arren, nire irakurtaldiaz aspertu bazaitut. Barrero, bizirik dagoanik eztoz nekatuko nire ustez. Al dozun gañoan aztu nagizu.

Onetxek izan ziran aren azken-solasak. Arresi gaiñera igorik salto arin bat egin eta bultzada oldartsu batez murgildu zan urpean, bere kartera ta guzti. Barriz, beste bein ikusteko nik egindako alegiñak alperrik izan ziran, urak bere sakonean artu eban.

An inguruan ebillen neskatxu lotsati ulegorri batek guzti au ikusi eban, baiña jaramonik be egin barik bere bidean jarraitu eban, urretxak janaz.

Aituezinekoa ulertu gurarik, guztiz auldu ta nekatuta neure gelaratu nintzanean, oe gaiñean etzunik, lan andirik egin bearrrik ez neban izan loak artzeko.

Gaur goizean berandu itxartu naz ta ez dakit zer daukodan be: ilda bainengokean lurra emoteko noz etorriko ete jatazan itxaroten banengokean lez.

Beste mundu batekoa nazala uste dot: inguratzen naben guztiak aztunak, eta bape ernegarri ez jataz.

Adiskide batek lora batzu ekarri daustaz ta lurperatu arte eztozazala bear esan dautsot. Arek bada-ezpadako irribarre bat egin daust; geienetan gizonok ulertzen eztozgunari barre egiten dautsogu.

PAPINI-GARITAONAINDIA TAR GOTZON

## PILIPINETAKO SENDIA

Pilipiñetako sendietan ez dogu ikusten beste batasunik Gabonetarako bederatzi-urrenak baiño. Umeak eurak goizean goizetik jagiten dira mezea entzuteko.

Gabon egunean bertan, gaberdiko meza-ostean, jaiak amaitu egiten dira. An ezin lei egin aparti aundirik jateko ta edateko; eta ez da izaten aukerarik batak bes-teari opariak gau orretan egiteko.

An opari bakarra alkarrentzat txera edo begirapen ona agertzea da, ez besterik.

Baiña goazen Cebu deritxon urira.

Lenengo ta bein txabolak, etxe-ordeak txosnak eta gela txikiak ikusiko doguz ugari, zabal-une aundian. Olako etxeak errez egiñak dira, bakanak, barruan ezelako zatiketarik ez daukenak eta alkarragandik urrean, bakarrik bizi izateko bildurra ba'leuke lez, edo alkarren laguntza edonoz eskatzeko aukerea nai ba'lebe lez. Egunez be ez dauke bear dan beste bakartasun, eta gabaz be ez naikoa.

Bakoitxak dauzan ondasun guztiak, oso gitxi izaten dira eta kartoizko ontzi baten erabilli leikez. Orregatik

errez tokiz aldatzen dira, ez dauke nagikeririk ara eta ona, bein eta barriro ibilteko.

Soiñekoak ia egunero garbitu bear izaten dabez eta jatekoa be bakoitxak berea bear izaten dau, baiña ortik kanpora ez dabe ezer ikusten.

Jaungoikoari egunero egiten dautsoez otoitz eta eskari beroak eta Zeruko Aita Onak onartzen dauz onein otoitzak eta euren ardurea be izaten dau. Eta orretarako bidea, Europa'ko ta Ameriketako Katolikuak izaten dira. Oneik biotz samurrez eta esku zabalez eutsiten dautsoe misiolarien lanari.

Ara zelan agertzen eban euretariko batek zintzotasunez, laguntza orregaitik esker ona: "Ni neu zoriontsu bizi naz, ez naz besterik tresna bat baiño. Niri babesle etorri jatana, nire esku zaintzaillea, Irugarren Mundutik iges egiteko menperatzen nauan norbait aurkitzea da".

Gorputzez ondo aztea eta buruz ornitzen joatea arribitxi bat da eta ori ez dabe lortzen burudunak, zentzundunak, baiño.

LETONA'K



*Gabonak Pilipifietan*

### IRAKURLEAI OARRA

ZER aldizkariak eta EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k ba-dauke Bilbao inguruan urteko arpidetza eskuratzeko era. Etxerik etxe joaten da kobratzaillea. Baiña gauzea ez da ain erreza errietan. Orregaitik eskari au egiten dautzuegu: Bialdu eiguzue txartel edo txeke bat. EUSKERAZALEAK ALKARTEAren izena ipiñi ta 1.500 pezeta dirala idatzita. Txartel ori sartu karta-azal baten eta gaiñean zuzenbidea ipiñi: EUSKERAZALEAK ALKARTEA. Colon de Larreategi, 14, 2.º, eskoia. 48001 BILBAO.

---

## LEGINETXE'TAR MANU

---

Nor ete dogu euskal-abizena daroan Manuel Leginetxe au?

Idazle ospetsua, euskotarra ta bizkaitarra, Euzkadi'n eta arago entzutetsua.

Bere gai nagusia ta berarizkoa, errien arteko guda-burrukak dira eta ikuspegi orregaz da bialdua ta mezularia.

Bere idaztiak, liburuak, eta idazlanak sarritan sarituak izan dira, olako leiaketetan garaille izan dalako. Albistarien arloko sariketan be "Ortega y Gasset" saria irabazi dau, iparringietan egin dauzan idaz-lanakaitik.

Baiña berak esaten dauan lez, geien onartzen dauan saria "Bizkai'ko Idazti-Saltzailleen Urrezko Idazkorta" da.

\*\*\*

Gernika-ondoko baserri baten, Arratzu ko Belendiz'en jaio zan, 1941n. urtean. Berrogei ta amaika urteko gizon egiña dogu ba.

Ziur-ziur, euskeraz berbetan be jakingo dau, baiña bizitzako ardurak eta zeregiñak atera eben erri orretatik eta lenengo Portugalete ra eta gero Bilbao'ra joan zan.

Bere ibilbear orreik dirala-ta ez dau izan astirik bere euskerea lantzeko eta euskeraz idazteko bestean gure izkuntza eskuratzeko.

Margolaria be ba-da eta bere baserriaren antzekoak diran etxeak margotu dauz, txakur txiki bat alboan eta ke-zulotik ke-moltsoa urtetan agiri dirala, inguruko zelai eta mendietan orri orlegiz beterik, udabarrian eta udan pagadiak kerizpe atsegingarria emoten dabela.

Lege-Jakintza ikasten asi zan Deustu'ko Ikastetxe Nagusian eta batera Gran Via aldizkarian idazten eban. Emen aurkitu ebazan Luciano Rincon eta Angel Ortiz idazle ospetsuak, baiña gure Leginetxe'k lan-toki zabalagoa nai eban eta Bilbao'tik Valladolid'era urten eban eta emendik Madrid'era. Izparlari on batek diñoan lez, idazleen munduan agertu nai eban.

Guda-albistari izateko erabagia artu eban. Ordurako mundu zabalean zear joan-etorri asko eginda egoan. Bein baten sei illebeterako asmoaz joan eta iru urteko ibillaldia egin eban. Lau lagun joan ziran eta iru etorri, euretariko bat ibillaldi orretan aienatu zalako.

\*\*\*

Manu berak diñoskun lez, "Vietnam'era edo India edo Pakistan'era norbait eltzen danean, ikusten dauzan gudak lenengoa izan ezkeru, zorabiatuta lez izten dau izparlaria".


J.J. Gamboa albistariak itandu eutson bein:

– Zein da zure eritxia Serbia ta Kroatia'ren arteko burrukari buruz?

– Itzalezko basati-guda dala. Komunistak ezarri ebezan erri-mugak ezereztu dira eta abertzaleak, berezko gauzea dan lez, euren burua zaindu eta euren jokabideak agertzen dabez.

Gure Leginetxe'tar Manu udan ikusi zeinke pitxar otz baten aurrean, nasai-nasai ta kontu-kontari, bere gazte-aldiko guda-izparlarien jardunak edesten zaintza non egiten eban eta gudari barrien emaztegaii eskutizak idatzi-bearra beteten ebalu agertzen.

LETONA'K



## EUSKAL MUSIKA

**1. Gu bai kantari!-** Besteai ezer kendu bagarik, arro esan geinke guk: "Gu kantari gara!" Ez al da olantxe? Leen eta orain, beti kantari. Edegi, otoi, Azkue'k eta Donosti'k biribildutako kantutegiak.

Zenbat kantu eder erritik jasoak! Eusko erraza zer izan dan eta zer dan argi dirauskue eurok. Euskalduna, beraz musikan be artista dala diñogu, ta ao betean esan be.

Eztarri bikain bat dau, enda-odolak emona. Ta gizasemeak bereak ditun doai ta gaitasun guztiak erabilli bear dauz; bere barne-arnasa, pozean naiz goibelaldian, zabal-azi bear dau.

Doaiak ez ditugu imillaunpean gordetzeko, ezta argi-mutilla be ezkutuan eukiteko; sentitzen dogunagaz urkoa be pozetan lurrundu bear dogu.

Euskaldunak olan egin dau, naiz orain 15 milla urte Santimamiñe'ko artzulo ta inguruetan bizi zala, naiz gaur errialde aundia dalarik: orduan kantari ebillen izadi zoragarriak eta gizarte ñabarrak eraginda, eta gaur be kantari dabil bere aurrerapen izugarrien artean.

**2. Euskalduna, doiñulari.-** Euskaldunak, euskadun dantetik, kantu ta dantzaz adierazo dau bere barru urduria.

Konturatu bage sortuak dira antza, gure kantutegietako lanak zoragarrienak; eta eurok dira guk euskaldunok kanturako daukaguzan gaitasunik ederrenen ezaugarri egiazkoak.

Baiña au alhora itxirik, esan daigun argi ta garbi: gure artean izan dira, gaur be ba-dira, ta gerokoan izango be bai, musilalari bikaiñiak.

Ez dot astirik bat bera be aitatzeko. Ainbat dira! Dakusgun, alan be, ia amaseigarren mendean olakorik ba genduan.

Gure erria berez kantari izanagaitik be, erri osoa ez da, jakiña, musikagille.

Ortarako doai ta teknika bereziak bear dira, ta onetariokoak askoren artean be banaka batzuk bakarrik izan oi dira.

Ona adibide bat: bizi garean gizaldirarte liñua artzen zan Euskalerrian. Soloan erein, batu, legortu, jo, kardatu, arildu ta abar, edozeiñek egin oi eban; baiña gero, eder-lanetan ikasiak, euntegi berezietan egin oi eban oiala, zapia, zamaua, zana zalakoa.

Musikan orobat. Euskaldunen artean edozein esan geinke kantari dala, baiña banaka batzuk besterik ez musikagille bikain.

**3. Iru gai.-** Musikan iru gai dazauguz batez be: **Igiera** (ritmua), **doiñua** (melodia) ta **ots-kidetasuna** (armonia).

Aldia neurtzen dau igierak, ritmuak; aldiak eztau bardin irauten eta ortarako doiñua dator era bitan, gogor eta bigun.

Itz bitan esanda: nota bakotzak, gogorrago naiz bigunago jo, bere balioa dau.

Ritmua itzari ezarri ezker, musika dramatikua sortzen da; zirkiñari ezarri ezker, barriz, jogailluzko edo sinfoni musika.

Ots-kidetasuna, armonia era bitan egin daikegu: goitik beera ta zearka. Eta era biotatik sortzen diran biñako, launa -

ko naiz bosnako notakin osotzen da akorde edo-ta soiñu-moltzoa.

Iru gai onein legeak zer batera doaz, adierazpenera; au da, izan be, musikaren jomuga, entzuleari zerbait esan, adierazo.

Ortara jo bear dau naiz erri-musikak naiz musika lan-duak. Gero, naste ta kobinazio orreitatik jagiten diran musika erak, askotakoak izan daitezke: motete, fuga, suite, sonata, sinfonia ta abar.

**4. Polifonia.-** Musika edestiak dirauskunez, IX'gn. gizaldiran agertzen da lenengoz aldi bereko melodi biren alkar-tzea.

Eleizan sortua da au, gaur gure euskal eleizetan egin oi danez.

Kantu batean, izan be, edo doiñua beeregitik artu dalako, edo-ta ez jakiñean, errez jaso oi dogu abotsa naiz bostgarrenera naiz zortzigarrenera, baita beeragotik ekin be.

Ementxe dau bere sort-ogea kontrapuntuak be.

Lenengotan melodi bat zan abots sendoari notaz notaren aurka laguntzen eutsana; ondoren, melodi geiago ezagutzetakoan, idatzi egin bear ziran naspil a uxatu zedin. Eta emen daukagu polifoniaren benetako oiñarria.

Polifoni musika au -esan dogu-, asieran beiñik-bein, eleizakoa izan zan. Musikalariak, liturgi-musika idaztean, kontrapuntuan osotzen ebezan euren lanak.

Geiegikeri ta abusuak asi ziran laster Aita Santu Pio IV'garrenak, mezak gai jatorrez idatzi ta osotu egizala, eskatu eutsan Palestrina'ri, orduko polifonista aundiari.

Ortik etorri zan polifoni-gaiak barrizatzea, ta egokitzea.

Ona orduko, au da, amaseigarren polifonistarik bikaiñienak: Palestina (1515-1594) italiarra, Frantzisko Guerrero (1528-1599) sevillarra, Tomas Luis Victoria (1540-1608) Avila'n jaioa izan arren, bizkaitarra odolez, eta Lassus (1530-1590) flamendarra.

**5. Eta Euskalerrian?-** Baita, musikak izan dau ta ba-dau gaur be etorbidea Euskalerrian.

Polifoni saillean ez gitxi.

Or gure kanta zar asko, noiztikoak diran ez dakiguzanak; ainbat ereni, Milia Lastur'ena ta besteak; baiña **Urtsuak zazpi leio**, **Alos-torrea** ta **Berterretxen kantoria** batez be, amalau-amabost gizaldikoak.

Euskalerria artista da musikan be; obeto: musikan batez be.

Gure erriak, jakinez edo-ta jakin gabe, musikea egin dau gizaldiz gizaldi.

Zelako musikalari erreskada eratu daikegun! Ez, ez kendu iñok gure erriari beretzat eta beste errailde askoren-tzat musikea sortzeko eskubidea, eta aalmena.

Len eta orain erri biziaren ertia egin nai dau.

Entzun gai ontaz zer diñoan aspaldi danik euskal arazo askori buruz kezkatu dabillen gernikar argi J.A. Arana Mar-

tija'k: "Bere Historian zehar Euskal Herriak -diño- muxika soziala eman du -funzionala esango genuke gaur-: toberak, eresiak, soinuak, ardo-kantak, haur-abestiak, eta abar eman ditu. Beharrizan batzuei erantzun die beti gure herri musikak. Kulturaren zati bat izan da alde honatik. Etorkizunari begira, gure musika gertaturik dago gaurko teknika onartzeko. Ez dugu inoiz onartu Zarlinok sortutako **eskala tenperatua**; gure xori abeslaria ez da inoiz kaiolan ohitu. Ostera, **eskala mikrotonala** munduan 1.923 inguruan sortu bazen, urte asko lehenago zedukan gure musikak Arnold Schonberg-en **hamabi soinuaren teknika**. Aintzinatik ibili dira teknika horiek gure bertsolarien ahotan. Politonalki erabiltzeko egokia dela batek baino gehiagok esan du" (**Lur eta Gizon**, 1974,181 or.).

Gai onetan etzan, ez, gure artean auntsaren gaberdiko ez-tula, zeozer geiago baiño. Gernikar idazleak onela darrai: "XIV' gn. mendean Iruinean erabili zen, lehenengoz European, **nota minima** orduko hosbakarra apurtzen zuen korntxea antzekoa". Dana dala, Napar erreñua goi-goï aurkitzen zan musika arloan, XV'gn. mende erditik aurrerantza, ta Europa guztitik etozan bertara musikalaria onak, erakusten eta ikasten. Ainbat datu daukaz J.A. Arana'k bere **Musica Vasca** liburu ederrean. Polofoni garaia loratu zanean, beraz, euskaldunok be ba-dogu zerbait. Jose Antxorena'k, adibidez, 1436 inguruan, Iruña'ko eleiz nagusian abeslari talde bat dauka, ta mezak eta salmuak antolatzen ditu bertan kantatzeko. Ba-ditu onek, geroago Burgos'en eginda, beste musikalan batzuk be, **Salve** bat eta **Stabat Mater** bat bai beintzat.

6. **Euskal polifonista batzuk.**- Erdi-Aroaren amaieran, au da, 1450'tik, onako iraultza antzekoa sortu zan, polifonieskolak ugaritzen asiaz.

Iraultza orretan eta musika teorian ain zuzen be, barriztatzaille orrein artean euskaldun bat daukagu naste, Martinez Bizkargi azkoitiarra.

Geuretariko bat, bai, polifoniaren urrezko aroak bere lentinpartak dizditsu emotean.

Pizkunde garaia, 1600'gn. urtea. Urte onetan jagia dogu lenengo opera be, ta "barroko" tankera berezia. Aro luze samar bi, Antxieta'z (1461) asi ta Joakin Oxinaga'rekin (1752) amaietzen dana.

Geure edestiaren orriak arakatu ezker, naikoa errez aurkitu geinkez polifoni deitu musika landu daben euskaldunak.

Alan be, amaseigarren gizaldiari bakarrik so-egiñak, bertan jaio ta bizi izandako batzuk aitatu ditut.

Iruña'n daukagu batez be musikalaria onein loratze joria. Andik zabaldu zan, eguzki-izpi antzera, beste uri askotara abestealdeak eratzeko naiz organua jotzeko naiz polifoniereslan bikaiñak antolatzeko areik eben trebetasun ikaragarria.

Andik kanpora be, egia esan, Euskalerrian ba-ziran organu ta organu-jotzaille erneak: 1448'an, Aide Nagusiak su emonda Arrasate erre zanean, ango organu ederra be bertan kiskaldu zan; baiña 1507'an, Garibai'k diñoskunez, barriro eratu eben.

Ezaganak dira organu aukerakoak Muskaria'n, Azpeiti'n, Elgoibar'en, Baiona'n eta abar.

Bardin organu-jotzailleak be.

Labur zurrian, aitatu daiguzan emen gipuzkoar musikalaria ospetsu bi: **Joanes Antxieta** eta **Gontzal Martinez Bizkargi**.

7. **Joanes Antxieta.**- 1461'an, Azpeiti'n jaioa dogu Antxieta.

Bere errian eta ba-leiteke Iruña'ko katedarlean egiñak ezatea bere eres-ikasketak. Dana dala, 1489'an Madrid'era deitu eutsoen, an Errege Katalikuen kantari, musikari ta kappellautza egiteko.

Andik amalau urtera, barriro bere jaioterrian daukagu, Flandes'ko polifoni-eskolak ikertu ondoren.

Antxieta'k naikoa musika idatzi eban, baiña aitatu dogun **Salve Regina** lau abotsetara ta beste zati batzuk izan ezik, ez dogu ezagutzen aren beste generako lanik.

Ezta garrantzi bakoia bere lana.

Zergatik?

Gure zortzikoa, 5/8, eta euskal eresidoiñuak sarri darabiltzalako.

8. **Gontzal Martinez Bizkargi.**- Azkoitiarra, 1460 inguruan jaioa.

Onok be, ba-leiteke, bere errian eta Iruña'n polifoni ikasketak osotu izatea.

Ziur dakigula, Burgos'ko katedralean izan zan Kapilla-maixu.

Antxe argitara ekarri eban, 1511'an, bere musika lan bikain au: **Arte de canto llano e contrapunto e canto de organo con proporciones e modos**, amaseigarren gizaldi erdia baiño len, sei bidar argia ikusi eban.

Bere eriotz ostean baita argitaratu zan: **Intonaciones segun el uso de los modernos**.

Baditu beste polifoni-lan batzuk be.

9.**Beste batzuk.**- nagusi bi onein artean, aipamena beintzat, merezi dabe besteok be: **Martin Azpilkueta**, naparra, Orreaga'ko lekaidea; **Juan Garmendia**, **Martin Ibañez Etxebarría**, **Juan Uriz**, **Esteban Migel Pero**, **Ibañez Ganboa**, **Andres Silba**, **Joanes Larrunbide**, **Lope de la Cruz**, **Prudencio Nabarro**, **Domingo Matanza**, **Juan Artetxe**, ta besteak.

Garai artan, izan be, gure musikalaria ta organu-jotzailleak, euskal erria ez-eze, erbesteko eleiz eta toki asko be, euren jakituriz eta eres-doiñuz beteten eben.

10. **Tomas Luis Viktoria.**- Avila'n jaioa izan aren, bizkaitarra dogu odolez.

1565'an asi zan bere musika bizitza ta "barroko" agertzean, il zan.

Morales'en ikasle izan zan Erroma'n, eta Palestrina'ren adiskide.

Meza asko daukaz Felipe 11 ari eskeiñiak, baita motete pilloa. Aren lanetatik bikaiñenatariko bat: **O vos omnes**.

Guztiok dakigunez, entzute zabaleko polifonista.

Eta ontaz naikoa.

ONAINDIA



# NAJA KALEKO LEKAIME DONEA

Lekaime-etxeko bere aizta ziran lekaimeek "Sor Corazon" esaten eutsoen eta berak beti esaten eban iñor baiño geiago bear-izanean dagoana, gaisoa dala eta bear-izan ori askoz larriagoa zala, ondasun barik dagozenena baiño.

Jesusen Biotzaren Maria aiztea izena eukan lekaime au Gazteiz'ko Herrera kalean jaioa zan. Iru urtekoa zala berna biak elbarrituta gertu zan eta ortik sortu jakon bizi guztirako nekebidea ta kalbarioa. Mirariz osatua izan arren, elbarria osatu jakonean biotzeko miña etorri jakon eta onek bere bizi guztian, amalau urtean iraun eban. Gaiso mingarri onek ez eutson izten ogean atsedena arzen eta bere aita aurkigifia zan ezkerero, aurki egoki bat egin eban eta orrelan bere buruari atsedena emon al izaten eutson.

## BILBAO'N SORTZAILLE

"Maria'ren Mirabeak" deritxon lekaime-taldearen sortzaille izan zan Bilbao'n: gero ez eban izan aukerarik, baiña Bartzelona'ra joateko asmo eukan. Ez eban bete asmo ori eta Bilbao'ra etorri zan azkenez. Ori diñosku Aita Nebreda'k idatzi dauan bere bizitzearen kondairak.

Bilbao'ra eldu eta Ronda Kalean Kurutzearen Alabak deritxoan lekaimeen etxean artu eben etxera. Ibarguengoitia'tar Mariano Erretore Jaunak artu eban euren ardurea.

## NAJA'KO SORTETXEA

Esperantza Kalean eukan bizilekutik barriro urten ziran Ronda Kalera, oraingo onetan 23n.atera.

Sortzailleagaz batera, lau lekaime-aizta ziran: Burgos'ko Sakramento aiztea, Davila'tar Kontzepzion aiztea eta Elorrio'tarra zan Mercedes aiztea. Gerotxuago alkartu jaken Galarraga'tar Soledad aizta gipuzkoarra.

Erritarren arteko guda zala-ta, Ronda'ko Lekaime-etxea itxierazo egin eutsen eta Gazteiz'era joan ziran. Emengo Gotzaiñak onartu ebazan, "Jesus'en Mirabeak" izenagaz, 1874n. urtean irasia zan erleiño-alkargo lez.

Baiña zer ete dauko Bilbao'k ainbestean beragana erritarrak ekarteko! Ainbeste bider itxia izan zan lengo Ronda kaleko etxera biurtu ziran eta emen ikusten doguz "Maria'ren Mirabeak" barriro. Ibarguengoitia ababe ona erbesteratuta egoan eta ezin bete izan eban len lez lekaimeen Gogo-Zuzendaritza. Ama Obrazon aukeratu eben nagusi izateko eta ementxe artu eben indarra lekaime bariak.



1877'an Ronda'ko 12 lekaime Naja'ko etxe batera aldatu ziran. Abarrategi'tar Teresa zan etxe onen jabea eta il zanean bere ondasunak, ortua, etxaldea ta dana lekaimeen eskuetan itzi eban bere azken-naia egin ebanean. Olan egin al izan eben "Maria'ren Mirabeak" eleizea ta lekaime-etxe barria.

## ILLERRI GURGARRIA

Lekaime-etxe onetan, aur-ontzi baten lez, irasi eban al-kartea Sor Maria Josefa edo "Sor Corazon" eritxonak, Jainkoaren eragin eginkorrak eraginda eta apostolu-lanetarako.

Sortzaillea bera bizi zala, España'ra ta Ameriketara 43 lekaime bialdu ebazan eta orain 76 iraspen dagoz eginda.

Sor Corazon il zanean, bere gorpua Derio'ko Itegira eroan eben eta gero andik, bein betiko, barriro ekarri dabe lekaimeen otoitz-lekura. Ementxe dago bere gorputz usteldubakoa, azken-egunean epai orokorrean turuta-otsa entzun-arte.

LETONA'k


# EUSKALDUN BARRIENTZAT

## TARTEGARRIAK



Etxetik ba zoaz, nua egingo dozu lo?

uztezu izoz



Noiz ordainduko dozu?

uztezu edo


Itz-salda onetan amar itz billatu bear dozuz.



-zugaiza, bidea, azala, espalora, amama, ibata, erra, arde-  
gia, aokua, txokoa.

AZALPENAZ

Sagutxuak, bere zulora joan gura dau; lagundu eiozu!



## MOZKORRA

Gizon bat naikoa mozkortuta dago bide bazterrean erdi etzanda, eta ertzaiña urreratu jako.

- Baña PERU; zer zabiltz or lurrean?

- Erriko etxe guztiak, hip! inguruan biraka ikusten dodaz, hip! eta nirea noiz agertuko dan zain nago, hip!

KARMELE

# IZKUNTZA BAT BERA DAUKAGU



*Auxe dozu zure betiko  
Kutxa. Bere berbea bete  
eta zure bear-izanak  
ulertzen dauzan Kutxa.  
Etorkizunera zabalik dagoan  
Erakundea, etenbako  
gora-gogoagaz  
bere erriko jenteari  
laguntza-gai osoak  
eskintzen dautsozana.  
Beti dago zugandik ur  
izkuntza bakar baten  
alkar ulertu daikegun.*

**BBK**  
**Bilbao Bizkaia Kutxa**

150 PEZETA